

BTT ARAUDIA

1. "Gernika-Lumoko mendi jaia"ren VIII. edizioa, BTT alorrean, mendi bizikletan egiten den proba ez-lehiakorra da.
2. Txirrindularitza Federazioko lizentzia duen edonork egin dezake. Lizentziarik ez dutenok, parte hartu dezakete antolatzaileek eskeiniko dieten eguneko aseguruua ordainduta. Mendi Federazioarekin Federatuta daudenok eguneko aseguruua ordaindu beharko dute.
3. Inskripzioa Mendi Jaiaren webgunean bertan egin daiteke, edota egun berean goizeko 9etatik 9:30etara. Irteera goizeko 9:45etan burutuko da.
4. Martxak 35km dauka eta 1300m. desnibel positiboa gutxi gora behera
5. Gutxienez 16 urte euki behar dira parte hartzeko
6. 300 partehartzaileen muga ezarri egiten da
7. KASKOA DERRIZGORREZKOA DA ibilbide osoan zehar.
8. Partehartzaile guztiok proba osoan zehar asistentzia mekanikoa zein mediku-sanitarioa izango dute
9. Debekatuta dago zaborra botatzea. Partehartzaile guztiok ingurunea errespetatu behar dute eta markatutako bidetik ibili behar dute.
10. Ibilbide guztia oinezko, zein ibilgailuentzako irekita egongo da. Beraz, partehartzaileek zirkulazio kodea errespetatu beharko dute, eta antolatzaileen zein segurtasun indarren esanak bete beharko dituzte
11. Ibilbide osoa markatuta egongo da. Gainera, antolakuntzako laguntza ibilgailuak eta txirrindulariak egongo dira bide osoan zehar.
12. Martxa amaitzerakoan Polikiroldegian dutxak egongo dira guztientzako. Gainera, Carcher zerbitzua egongo da ere bizikletak garbitzeko.
13. Antolatzaileen esku geratzen da ibilbidearen edonolako aldaketa ezarri egitea.
14. Martxan parte hartzeak arautegi honen onarpena Dakar.